

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,2 hazi zen abenduan

Gizarte Segurantzako afiliazioa serie historikoko zifrarik handienara iritsi zen abenduan, 1.036.084 afiliadorekin, hau da, %1,2ko hazkundea izan zuen 2024ko hilabete berarekin alderatuta. Laugarren hiruhilekoko batez bestekoa ere %1,2koa izan zen, urteko baliorik handiena. Horrek erakusten du Euskadin enpleguaren sorrera bizkortu egin dela ekitaldiak aurrera egin ahala.


Sexuaren araberako azterketak emakumeen eta gizonen arteko hazkunde orekatua islatzen du (%1,2), eta joera horri eusten zaio urritik. Gainera, emakumeen afiliazioek azaroan gaitututako milioi erdiaren mugatik gorako aurrerapena sendotu dute. abendu honetan. Gaur egun, afiliazioen %48,4 emakumeei dagokie, eta %51,6, berriz, gizonen.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

ABENDUKO AFILIAZIOA
%1,2




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




AFILIAZIOA INDUSTRIAN

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Abenduan, zerbitzuen sektorea izan zen berriro enplegu sorreraren liderra, %1,4ko hazkundearekin. Bereziki nabarmendu ziren osasun, administrazio eta lanbide jarduerak, bai eta, gabonetako jarduera baliatuz, ostalaritza ere. Merkataritzak, berriz, oso ohikoa ez den beherakada izan zuen

data horietarako. Eraikuntzak bere dinamismoari eutsi zion, %2,6ko hazkundearekin. Bestalde, industriak urte ia laua itxi zuen, abenduan afiliaturik gehitu gabe (%0,0), ekitaldi osoan bilakaera oso apala izan ondoren.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

	2024ko abendua	2025eko abendua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	1.024.511	1.036.804	12.293
Industria manufakturagileak	174.939	174.756	-183
Merkataritza	136.555	136.252	-303
Osasun arloko jarduera	118.004	120.211	2.207
Hezkuntza	85.655	87.278	1.623
Ostalaritza	72.193	73.068	875
Administrazio jarduerak	69.506	71.627	2.121
Lanbide jarduerak	64.571	66.386	1.815
Eraikuntza	58.733	60.273	1.540
Administrazio publikoa	52.145	52.415	270
Garraioa	47.088	48.122	1.034
Informazioa eta komunikazioa	27.949	28.584	635
Etxeko langileak	28.000	27.870	-130
Bestelako zerbitzuak	27.068	26.966	-102
Jarduera artistikoak	20.200	20.779	579
Finantza jarduerak	17.343	17.659	316
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.043	10.767	-276
Ur horniketa	6.719	6.859	140
Higiezin jarduerak	4.393	4.474	81
Energia horniketak	1.778	1.788	10
Erauzketa industriak	539	574	35
Lurraldez kanpoko erakundeak	88	95	7

Iturria: Gizarte Segurantza.



**Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila**